



**2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005**

Akta zenbakia: 1/2005
Bilera data: 2005-01-25
Bilera mota: Ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordua: 16:30-17:25
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Acta nº: 1/2005
Fecha: 25-01-2005
Tipo de reunión: Pleno ordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 16:30 – 17:25
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Bertaratutakoak:
Alkatea: Florentino Ugalde Atxaga

Reunidos:
Alcalde: Florentino Ugalde Atxaga

Zinegotziak:
Maria Isabel Vaquero Montero
Jose Luis Aramendi Goikoetxea
Jose Maria Aldanondo Ugalde
Maria Angeles Iriondo Mugica
Gaspar Esnaola Agesta
M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz
Hermenegildo Gonzalez Moran
Consuelo Frutos González
Jose Guirado Novo
Jose Maria Mugica Heras
Juan Maria Tomasena Alzuri
M. Asuncion Guerra Alonso

Concejales:
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
Jose Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Gaspar Esnaola Agesta
M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
Jose Maria Mugica Heras
Juan Maria Tomasena Alzuri
M^a Asuncion Guerra Alonso

Bitarteko idazkaria:
Beatriz Garate Cortabarría

Secretaria interina:
Beatriz Garate Cortabarría

Bitarteko kontuhartzailea:
Aitziber Zurutuza Arza

Interventora interina:
Aitziber Zurutuza Arza

Aztergaiak:

Orden del día:

- 1.- Aurreko aktak onartzea, bidezkoa bada.
- 2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.
- 3.- Emakida bidezko zeharkako kudeaketa onartzea, kale garbiketa eta gunee berdeen zerbitzurako.

- 1.- Aprobación, si procede, de las actas anteriores.
- 2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.
- 3.- Aprobación de la gestión indirecta, mediante concesión, como forma de la prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes.



2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

4.- Udaleko Talde Sozialistak aurkeztu duen mozioa, Asiako Ekialdean izandako itsasikarak eragindako giza hondamendiari buruzkoa.

5.- Galde-eskeak.

4.- Moción presentada por el Grupo Municipal Socialista, relativa a la catástrofe humana ocasionada por seísmo en Sudeste Asiático.

5.- Ruegos y preguntas.

1.- Aurreko aktak onartzea, bidezkoa bada.

Alkateak lehenengo gaia aurkeztu du, eta esan du 2004ko azaroaren 4ko eta 2004ko azaroaren 24ko aktak onartu behar dituztela; era berean galdetu du ea inork baduen ezer esateko honen inguruan.

Ez da eztabaidarik izan, eta Udalbatzak aho batez onartu ditu 2004ko azaroaren 4an eta 2004ko azaroaren 24an egindako udalbatzarraren aktak.

2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

2004ko azaroaren 18tik 2005eko urtarrilaren 19ra bitarteko Alkatezako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

Era berean, 2004ko azaroaren 18an eta 2004ko abenduaren 2an, 16an eta 27an Herriko Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren ganean geratu dira.

1.- Aprobación, si procede, de las actas anteriores.

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar las actas del 4 y del 24 de noviembre de 2004; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

No se ha producido ninguna discusión, y el Pleno ha aprobado de forma unánime las actas de las sesiones plenarias celebradas el 4 y el 24 de noviembre de 2004.

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 18 de noviembre de 2004 hasta el 19 de enero de 2005, enviados junto con la convocatoria.

Asimismo, se ha dado cuenta de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 18 de noviembre de 2004 y el 2, 16 y 27 de diciembre de 2004. Por tanto, han quedado informados.



2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

3.- Emakida bidezko zeharkako kudeaketa onartzea, kale garbiketa eta gune berdeen zerbitzurako.

Alkateak hasi du gai hau esanez beraien proposamena zeharkako kudeaketa dela bi zerbitzu horietan. Esan du txosten ekonomiko bat egin dutela horri buruz, baina berak txosten horri ez diola buelta gehiagorik emango; txosten horretan azaltzen da gutxi gorabehera zerbitzua gaur egun zenbat kostatzen zaien, eta, zuzenean hartuko balute, inbertsio batzuk egin beharko lituzkete: makineria, lokala, kamioneta eta lokal horiek zerbitzu horietarako egokitzea. Beraz, irizpide ekonomikoaz gain irizpide logikoa erabiliz, eta kontuan hartuz udal guztiek zeharkako bidea hartzen dutela, ez daki zein arrazoi egon daitekeen zuzeneko zerbitzuaren alde egiteko, hobeto eta merkeago ateratzen bazaie zerbitzua zeharka ematea. Bestetik, esan du ez zaiela oso arrazoizkoa iruditzen zuzeneko zerbitzua emateagatik plantilla kolpetik %20an gehitzea, batez ere kontuan izanik hainbat departamentu nolabait osatu eta eguneratu behar dituztela. Bestalde, azaldu du langileekin arazoa izango luketela, bai gaur egun dagoen plantilla hartuz gero eta bai kanpoan utziz gero, eta orduan sei hilabete-edo egongo liratekeela kolokan. Amaitzeko, esan du gaurko botazioa ez dela bat edo beste aukeratzea, baizik eta beraien proposamena, zeharkako kudeaketa, bozkatzea.

Horren ostean, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du hainbat gauza esan nahi dituela, zuzenak iruditzen ez zaizkiolako. Lehenik eta behin, esan du zerbitzu berberak emateko langile kopuru berbera izango dela, zuzenean edo zeharka izan. Oraingo langileak kanpoan geratzeko beldurra dela eta, esan du langileak enpresa berrira pasatzea babesten duela garbitasunaren gaineko

3.- Aprobación de la gestión indirecta, mediante concesión, como forma de la prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes.

El alcalde ha comenzado este punto diciendo que su propuesta es proceder a la gestión indirecta en los dos servicios. Ha señalado que han elaborado un informe económico, pero que no dará más vueltas a ese informe. En él se hace una estimación del coste que supone el servicio hoy en día, y explica que si optan por la gestión directa, deberán hacer algunas inversiones: maquinaria, local, camioneta y adaptación de locales a los servicios. Por tanto, haciendo uso de un criterio lógico además del económico, y teniendo en cuenta que todos los ayuntamientos optan por la gestión indirecta, no entiende los motivos para optar por la gestión directa, cuando les sale mejor y más barato ofrecer el servicio de forma indirecta. Por otra parte, ha señalado que no les parece razonable aumentar de golpe la plantilla en un 20% para ofrecer el servicio de forma directa, sobre todo cuando tienen varios departamentos sin completar y actualizar. Ha explicado también que tendrían problemas con los trabajadores, tanto asumiendo la plantilla actual como dejándolos en la calle, y que entonces estarían en una situación inestable durante seis meses. Ha concluido diciendo que la votación de hoy no se trata de elegir una opción u otra, sino de votar su propuesta de gestión indirecta.

A continuación, ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para decir que quiere plantear varias cosas que no le parecen correctas. En primer lugar expone que la plantilla, sea de forma directa o indirecta, para realizar los mismos servicios, debe ser en número igual. En cuanto al temor a que los trabajadores actuales se queden fuera, ha dicho que el Convenio de la limpieza ampara que los

**2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005**

hitzarmenak, nahiz eta kontuan izan behar den hau administrazio publikoa dela; hala ere, esan du beldur horrengatik eta ildo horri jarraituz, gaur egun zeharkako kudeaketa gisa planteatzen den guztia ez dela inoiz zuzeneko kudeaketa gisa planteatuko, eta, gainera, aukera juridikoaz gain borondate politikoa izan behar dela kontuan. Jarraitu du esanez udaletxe gehienek kudeatzeko modu sinpleena erabiltzen dutela, hau da, azpikontratazioak. Bere iritziz, kudeaketa zuzena edo zeharkakoa izan, ez da zertan plantilla handitu, eta esan du harrituta geratu dela kontuhartzaileak igorritako txostenean zenbat langile agertzen diren ikusita, gaur egun ez baitira hamar langile ere. Jarraitu du esanez kudeatzeko bi moduen arteko alde ekonomikoa izan daitekeela langileei ordaintzen zizkien pirateriazko soldaten eraginez, eta hori beste arazo bat dela. Esan du bere ustez arlo publikotik egin daitekeela hori modu eraginkor, arrazoizko eta ez garestiago batean. Horrengatik, bera ez dago ados zerbitzu horiek zeharka kudeatzearekin.

Alkateak hartu du hitza, eta EBko zinegotziari erantzun dio eguneroko logikak erakusten duela zein den erantzuna zeharkako kudeaketaren eta zuzenekoaren artean. Esan du zeharkako kudeaketa egiten bada kontratuaren baldintzetan agertuko dela, orain arte egin den bezalaxe, indarrean dagoen ituna bete beharko dutela. Bestetik, esan du gaur egun Sustrai Onak enpresak daukan plantilla 10 lagunetik 14 lagunera bitartekoa dela udan eta neguan, eta gaur eguerdian baieztatu diotela 11 lagun daudela, nahiz eta txostenak 10 langilerekin eginda dauden.

trabajadores se subroguen a la nueva empresa, aunque hay que tener en cuenta que esto es una Administración pública, de todas formas expone que por ese temor y siguiendo esa regla, todo lo que actualmente se plantea como una gestión indirecta nunca pasaría a plantearse mediante gestión directa y además hay que tener en cuenta la voluntad política, además de la posibilidad jurídica. Sigue exponiendo que la mayoría de Ayuntamientos utiliza la forma de gestión más sencilla, que son las subcontratas. Opina que, sea la gestión directa o indirecta, no tiene por qué ampliarse la plantilla y que le ha sorprendido el número de trabajadores que aparecen en el informe remitido desde Intervención, ya que actualmente no hay diez trabajadores. Continúa diciendo que la diferencia económica entre las dos formas de gestión sólo se puede achacar a que a los actuales trabajadores se les está abonando sueldos de piratería y que eso es otro problema. Ha dicho que él cree que desde el ámbito público se puede desarrollar de una manera eficaz, razonable y económicamente no más cara. Por todo ello, él se muestra en desacuerdo con la gestión indirecta de estos servicios.

Ha tomado la palabra el alcalde quien ha respondido al concejal de IU diciendo que la lógica del día a día les enseña cuál es la respuesta a la opción entre la gestión indirecta o la directa. Asimismo, ha señalado que, si se opta por la gestión indirecta, una de las cláusulas del contrato será, tal y como se ha establecido hasta hora, el cumplimiento del convenio. Por otra parte, ha señalado que la plantilla actual de Sustrai Onak la componen entre 10 a 14 trabajadores en verano y en invierno, y que hoy al mediodía le han confirmado que hoy en día cuenta con 11 trabajadores, si bien los informes están elaborados sobre 10 trabajadores.



2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

Horren ostean, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du kudeaketa zuzenak ekarriko lituzkeen ondorioak aztertuta badirela ondo lotzen ez diren hainbat kontu; hala nola, zabortegirako garraioaren gastua eta 30.000 euroko alokairua; izan ere Sustrai Onak enpresari ez zaio kobratzen... Beraien ustez, kudeaketa zuzenaren eta zeharkakoaren artean ez dago alde ekonomiko handirik; baina gauza bat bai ikusi da garbi urte hauetan: duela hiru edo lau urtetik hona Sustrai Onak ematen ari den zerbitzua txarra da; zeharkako kudeaketa kasu honetan emaitza txarrak ematen ari da. Beraiek zuzeneko kudeaketaren alde daude, eta ez daude ados zeharkakoarekin.

Alkateak hartu du hitza erantzuteko, eta esan du zerbitzu hau baldintza batzuekin atera behar dutela; izan ere, gaur egunean Sustrai Onak enpresak ez ditu ematen bere garaian emandako zerbitzu batzuk, eta eman ez zaizkion zerbitzu asko egiten ditu; beraz, hor kontraesan bat dago, eta hori nolabait jaso egin behar da, eta zehaztu egin behar da bere lanak zeintzuk izango diren. PSE-EEko zinegotziak erantzun dio bazegoela kontratu bat Sustrai Onak enpresarekin, eta inork ez duela behartu zerbitzua ondo egitera; areago, esan du badela atal bat non adierazten den hiruhileko batean hiru aldiz ohartaraziz gero emakida kendu ahal izango zaiela; baina, gainera, zerbitzu hori akastuna da 1992. urtetik, hau da, sortu zenetik; izan ere, gaizki kontratatu zen, luzatu ezin zenean luzatu zen, eta, azkenean, hemen ez dute erabakiko kudeaketa zuzena edo zeharkakoa izango den, baizik eta Sustrai Onak kontratatzen jarraituko duten edo ez. Alkateak erantzun dio bera ez dela ari planteatzen Sustrai Onak kontratatu edo ez, eta esan du kulpaa osoa Sustrai Onak enpresari ez zaiola bota behar, zeren eta ematen dituzten hainbat zerbitzu Udalak agindu dizkie; orduan, aitortzen du akats batzuk badaudela, eta ez

Después, ha solicitado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para decir que, dándole un repaso a lo que supondría la gestión directa, hay cuestiones que no acaban de cuadrar, como puede ser el gasto de transporte del vertedero o el alquiler de 30.000 euros, cuando a Sustrai Onak no se le cobra, etc. Ellos consideran que entre la gestión directa y la indirecta el tema económico no es muy diferenciado, lo que sí se ha demostrado en estos años es que desde hace tres o cuatro años el servicio que está prestando Sustrai Onak es malo, que la gestión indirecta en este caso les está dando malos resultados. Ellos apuestan por la gestión directa y no están de acuerdo con la indirecta.

Ha tomado la palabra el alcalde para contestarte que este servicio hay que sacarlo con unas condiciones, ya que hoy en día Sustrai Onak no cumple con todos los servicios que ofrecía en su día y, sin embargo, realiza muchos servicios que no se le han encomendado; por tanto, existe una contradicción, que hay que recogerla de alguna manera y concretar qué funciones va a tener. Le responde el concejal del PSE-EE que sí había un contrato con Sustrai Onak y que nadie le ha obligado a hacer el servicio bien, que incluso hay un apartado que indica que si en un trimestre se les llamase la atención tres veces, se le podría quitar la concesión; pero además este servicio viene viciado desde que se creó en 1992, porque se contrató mal, se prorrogó cuando no se podía prorrogar y al final, lo que se persigue aquí no es decidir si gestión directa o indirecta, sino decidir si seguir contratando a Sustrai Onak o no. El alcalde le ha respondido diciendo que él no está planteando contratar o no a Sustrai Onak y que toda la culpa tampoco se le puede achacar a dicha empresa, ya que varios de los servicios que ofrece han sido por orden del Ayuntamiento; por tanto, reconoce que existen varios vicios, y que

**2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005**


dagoea jasota zein baldintza bete behar dituzten. no están recogidas las condiciones que han de cumplirse.

Horren ostean, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok hartu du hitza, eta bere jarrera azaldu du; esan du, informatu eta datuak bildu ostean, iritziz orokorra zeharkako kudeaketaren aldekoa dela ia toki guztietan. Azaldu du bere iritziz bideragarriagoa dela zeharkako kudeaketa, eta lehiaketara atera behar luketela, behar bezalako oinarri batzuekin, dena legez egin dadin, eta hortik aurrera lanean hasi; izan ere, atzera jotzen hasita 1992 edo 1995. urtera jo dezaketela gaizki egin zutelako, baina gaur egun Udalari langile eta funtzionario gehiagoren zama eranstea ez zaio logikoa iruditzen. Amaitu du esanez gaur egun onena zeharkako kudeaketaren alde egitea dela, baina lizitazio eta kontratu oinarri on batekin.

PSE-EEko bozeramaile M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek hartu du hitza, eta esan du beraiek emakida sistemaren orde zuzeneko kudeaketaren alde daudela, alde batetik badakitelako zein den zeharkako kudeaketaren emaitza, eta bestetik sakoneko kontu batengatik, hau da, ideologia kontuagatik; izan ere, beraien ustez ez da posible zerbitzu publikoak, publikoak izanda, soldata jakin bat izatea, azpikontratututako pertsonen ematea, politikariek hala erabaki dutelako, eta lan hori egiteagatik askoz gutxiago kobratzea. Beraien ustez ona da botere publikoek soldata txikiagoko enplegurik ez sortzea, zabor enplegurik ez sortzea. Jakitun dira kudeaketa konplikatu egiten dela zuzeneko denean, eta lan handiagoa ematen diola Administrazioari, baina uste du botere publikoak gai direla langileak kudeatzeko eta langile horiek soldata duin bat eta emandako lanak betearazten jakiteko. Izan ere, bestela ez da batere bidezkoa sektore ahulena

Después ha solicitado la palabra la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso para exponer su posición; ha dicho que, después de informarse y recabar datos, la opinión general es que se tiende a la gestión indirecta en casi todos los sitios. Ha expuesto que su opinión es que es mucho más factible una gestión indirecta, que lo que hay que hacer es sacar un concurso con unas bases en condiciones, que todo se haga de forma legal y a partir de ahí, empezar a trabajar, porque por remontarse al pasado se pueden remontar al 1992 o al 1995 porque está mal hecho, pero en este momento, cargar al Ayuntamiento con personal nuevo y funcionarios no le parece lógico. Ha concluido que en su opinión lo mejor en este momento es apostar por la gestión indirecta pero con una buena base de licitación y de contrato.

Pide la palabra la portavoz del PSE-EE, M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir que si ellos apuestan por cambiar el sistema de concesión por el de gestión directa es por una parte, porque conocen el resultado de la gestión indirecta y por otra parte, por una cuestión de fondo, ideológica y es que ellos creen que lo que no puede ser es que aquellos servicios que siendo públicos tienen un sueldo determinado, sean ejercidos por personas subcontratadas, porque los políticos han decidido que sea así, y cobren muchísimo menos por ejercer ese trabajo. Ellos consideran que es bueno no tender desde los poderes públicos a generar empleos con sueldos menores, empleos basura. Son conscientes de que la gestión se complica cuando es directa y de que da más trabajo a la Administración, pero considera que los poderes públicos son capaces de ejercer la gestión de los trabajadores y saber imponer que esos trabajadores tengan un sueldo digno y ejecuten

Urnietako Udala*Euzkera**Ayuntamiento de Urnieta*

2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

azpikontratatzea eta azpikontraten logika liberala arlo guztietara ez aplikatzea; goiko funtzioak ez dituzte azpikontratitzen, baizik eta soldata txikiagoak jasoko dituzten pertsonak azpikontratitzen dira; eta azpikontratitzen direnak langile publikoak direnez, inkoherentea iruditzen zaio, eta botere publikoek ezin dute halako banaketarik egin, horrek errentan gero eta alde handiagoa baitakar.

PPko zinegotziak eskatu du hitza, eta esan du bere ustez zeharkako kudeaketa egitea eta enpresa bat kontratatzea ez dela soldata miserable batzuk ordaintzea; izan ere, lizitazioa ateratzeko orduan sektoreko hitzarmena bete dezala eskatuko zaio enpresari.

Ondoren, hitza eskatu du EAJ-EAko zinegotzi M. Isabel Vaquero Monterok, eta esan du beraiek alderdi politiko bezala zeharkako kudeaketaren alde daudela hainbat arrazoirengatik: Hirigintza Saila ez dago beraiek nahi luketen moduan, eta aurren hobetu egin nahi dute; beraz, bi zerbitzu horien karga hartzea gehiegizkoa iruditzen zaie; udal honek inoiz ez du zerbitzu hori zuzenean eman; beraz, zalantzan jartzen dute lehenengo urtean behintzat oso eraginkorra izango ote den; inbertsio nahiko handiak egin behar dira bost urtean behin, eta urteroko mantentze-lana ere garestiagoa iruditzen zaie. PSE-EEko bozeramaileak esan duena ekarri du gogora, hau da, kontu ideologikoa dela hau dena, baina berari iruditzen zaio gobernatzen ez duten udaletxeetan bakarrik aplikatzen dutela ideologia, zeren eta PSOE taldeak gobernatzen duen udaletxeetan zeharkako kudeaketa dute. M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek erantzun dio hori dela Urnietako beraien eredia eta nahiko luketela beraien alderdia hori aldatzea.

los trabajos que les sean encomendados, porque en otro caso es muy injusto que sea el sector más débil el que se subcontrate y no se aplica la lógica liberal de subcontratas a todos los apartados, otras funciones superiores no se subcontratan, sino que son las personas que además van a recibir un sueldo menor que siendo trabajadores públicos los que ellos subcontratan, esto les parece incoherente y que desde los poderes públicos no pueden realizar ese tipo de reparto que fomenta la desigualdad de renta.

Solicita la palabra la concejal del PP para exponer que ella no considera que hacer una gestión indirecta y subcontratar una empresa signifique pagar sueldos miserables, ya que a la hora de sacar la licitación a esa empresa se le va a exigir que cumpla el convenio del sector.

A continuación, ha solicitado la palabra la concejala del PNV-EA M^a Isabel Vaquero Montero para señalar que ellos como grupo político apuestan por la gestión indirecta, por varias razones: el Departamento de Urbanismo no se encuentra en la situación que a ellos les gustaría, y este año les gustaría mejorar dicho departamento; por tanto, cargar con esos dos servicios les parece excesivo; este Ayuntamiento nunca ha ofrecido ese servicio directamente, de modo que ponen en tela de juicio el hecho de que, por lo menos el primer año, el servicio vaya a ser eficaz; además, deberán hacer inversiones importantes cada cinco años, y el mantenimiento anual también les parece más caro. Ha hecho referencia a la intervención de la portavoz del PSE-EE de que todo esto es una cuestión ideológica, pero ella opina que sólo aplican la ideología en los ayuntamientos en que no gobiernan, porque en los ayuntamientos en los que gobierna el grupo PSOE tienen una gestión indirecta. M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz le ha respondido diciendo que ese es el modelo de ellos para Urnieta y que les gustaría que su



2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

partido cambiara en ese sentido.

Eztabaidatu ondoren, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 6 (EAJ-EA)
Kontra: 6 (5 PSE-EE, 1 IU).
Abstentzioak: 1 (PP).

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 6 (PNV-EA)
En contra: 6 (5 PSE-EE, 1 IU)
Abstenciones: 1 (PP)

Alkateak esan du ez dela onartu, gehiago absolutua behar delako, eta ikusiko dutela zer gertatzen den edo zer bide hartu behar duten honi buruz.

El alcalde ha señalado que no queda aprobado, dado que se necesita mayoría absoluta, y que ya verán qué ocurre o qué vía se puede tomar.

Kontuan harturik Erregimen Lokaleko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 47.2. k) atalean ezartzen duenez Toki Korporazioko udalbatzarrari dagokiola zerbitzuaren kudeaketa modu zehatza ezartzea eta Korporazioko kideen zenbateko legalaren gehiago absolutuaren aldeko botoa behar duela, ez da onartu kale garbiketa eta gune berdeen zerbitzurako emakida bidezko zeharkako kudeaketa.

Teniendo en cuenta que en virtud del apartado 47.2 k) de la Ley 7/1985 de 2 de abril reguladora de las bases de Régimen Local es competencia del Pleno de la Corporación establecer el modo exacto de gestión del servicio con el voto a favor de la mayoría absoluta del cómputo legal de los miembros de la Corporación, no se ha aprobado la gestión indirecta mediante concesión como forma de la prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes.

4.- Udaleko Talde Sozialistak aurkeztu duen mozioa, Asiako Ekialdean izandako itsasikarak eragindako giza hondamendiari buruzkoa.

Alkateak hartu du hitza, eta esan du kontu honekin zer egin erabaki zutela aurreko gobernu batzarrean; gero, hitza eman dio M. Isabel Vaquero Monterori, gaia azal dezan. EAJ-EAko zinegotziak esan du urteko lehenengo gobernu batzarrean onartu zutela 3.000 euroko kontu-sail bat urgentziaz bideratzea hondamendi horretan laguntzeko. Esan du ere gelditu zirela urte hau aurrera zihoanean eta udal aurrekontua onartzen

4.- Moción presentada por el Grupo Municipal Socialista, relativa a la catástrofe humana ocasionada por seísmo en Sudeste Asiático.

Ha tomado la palabra el alcalde para señalar que en la última Junta de Gobierno ya decidieron sobre este asunto, y a continuación ha cedido la palabra a M^a Isabel Vaquero Montero, para que explique el acuerdo adoptado. La concejala de PNV-EA ha señalado que en la primera Junta Local del presente año acordaron destinar con carácter de urgencia una partida de 3.000 euros para paliar la catástrofe del sudeste asiático.

Urnietako Udala



Ipuzkoa

Ayuntamiento de Urnieta

2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

dutenean beste partida bat destina lezaketela. Talde sozialistak planteatzen duen mozioan bi puntu daude: bata, diru kantitatea, eta hori egin dago; eta, beste alde batetik, honako hau: *Urnietako Udalak bere atsekabea azaldu nahi du Asiako ekialdean gertatutako giza hondamendia dela eta, eta bere solidaritatea adierazten die kaltetu guztiei.* Beraz, pentsatzen du hori egin dezaketela batzar honetan, zenbateko diru laguntza eman erabakita baitago.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek eskatu du hitza, eta esan du ez zekitelako gobernu batzarrean gai horri buruz hitz egin zutenik; izan ere, jakin izan balute ez zuten mozio hori aurkeztuko, baina pozten da proposatutako zenbatekoan bat etorri izanaz, eta esan du mozio horretako puntu bat bozkatzea gustatuko litzaiokeela; beraz, puntu hori irakurri du.

Alkateak bozkatzeko proposatu du eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSOE-EE, 1 EB, 1 PP)
Kontra: 0
Abstentzioak: 0

Ikusirik Urnietako Udaleko Talde Sozialistak aurkeztu duen presazko mozioa, Asiako Ekialdean izandako itsasikarak eragindako giza hondamendiari buruzkoa.

Ikusirik 2005eko urtarrilaren 13an Herriko Gobernu Batzarrak harturiko akordioa.

Gaia bozkatu ondoren, udalbatzarrak aho batez hartu du ondorengo

También ha señalado que quedaron en que durante el presente año y una vez que aprobaran el presupuesto municipal podrían destinar otra partida para el mismo fin. En la moción planteada por el grupo socialista hay dos puntos: uno, referente a la cantidad económica, y el otro el que dice así: *El Ayuntamiento de Urnieta desea mostrar su consternación ante la catástrofe humana sufrida en el sudeste asiático, y manifiesta su solidaridad con todos los damnificados.* Por tanto, piensan que eso es lo que podrían hacer en este pleno, porque el importe económico ya está previsto.

Ha solicitado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para decir que no sabían que se había tratado este tema en Gobierno, porque de haberlo sabido no hubieran presentado la moción, pero se alegra de coincidir con la cantidad propuesta y expresa que le gustaría que se votara el punto uno de la moción, que procede a leer.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, y el resultado ha sido el siguiente:

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSO-EE, 1 IU, 1 PP)
En contra: 0
Abstenciones: 0

Vista la moción urgente presentada por el Grupo Socialista del Ayuntamiento de Urnieta, referente a la catástrofe humana creada por el maremoto del sudeste asiático.

Visto el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local el 13 de enero de 2005.

Tras la votación, el Pleno ha adoptado de forma unánime el siguiente



2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- Asiako Ekialdean izandako itsasikarak eragindako giza hondamendiari buruzko mozioa onartzea, honako hau dioena: *Urnietako Udalak bere atsekabea azaldu nahi du Asiako ekialdean gertatutako giza hondamendia dela eta, eta bere solidaritatea adierazten die kaltetu guztiei.*

5.- Galde-eskeak.

Alkateak hitza eman die gainontzeko zinegotziei nahi dutena galdetzeko edo esateko.

Puntu honen hasieran, 17:05ean, PSE-EEko zinegotzi Jose Maria Mugica Herasek udalbatzarra utzi du.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta hiru kontu dituela adierazi. Batetik, Udaleko langileen antolamendu berriaz galdetu du. M. Isabel Vaquero Montero alkateordeak erantzun dio organigrama berria ez dutela erabat definitu, baina prestatuta dagoenean zinegotzi guztiei jakinaraziko dietela, informazio batzorde baten bidez.

Gero, Arau Subsidiario berriengatik galdetu du EBko zinegotziak. Alkateak erantzun dio gai horrekin kezkatuta daudela, beste gauza batzuen artean, Lege berria atzetik daukatelako; bestetik esan du uste baino atzeratuagoak daudela informazioa falta delako; dena den, ezer serioa planteatzen duten garaian, denon aurrera azalduko direla ildo nagusiak zeintzuk diren.

ACUERDO

Primero y único.- Aprobar la moción sobre la catástrofe humana creada por el maremoto del sudeste asiático, concretamente el siguiente punto: *El Ayuntamiento de Urnieta desea mostrar su consternación ante la catástrofe humana sufrida en el sudeste asiático, y manifiesta su solidaridad con todos los damnificados.*

5.- Ruegos y preguntas.

El alcalde ha cedido la palabra a los concejales por si quieren preguntar o decir algo.

Al inicio de este punto y siendo las 17:05, el concejal del PSE-EE, Jose Maria Mugica Heras, abandona la sala de plenos.

Ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri quien ha expuesto que tiene tres cuestiones. Por un lado, ha preguntado por la nueva organización de personal del Ayuntamiento. La teniente-alcalde M^a Isabel Vaquero Montero le ha respondido que el nuevo organigrama no ha llegado a su última definición, pero que una vez esté preparado se dará cuenta de ello a todos lo concejales en una comisión informativa.

Después el concejal de IU ha preguntado sobre la redacción de las nuevas Normas Subsidiarias. Le ha respondido el alcalde diciendo que están preocupados con ese tema, entre otras cosas porque viene por detrás la nueva Ley; por otra parte, ha dicho que están más retrasados de lo que creían, por falta de información; no obstante, cuando planteen algo serio comparecerán ante todos para presentar las líneas generales.

Urnietako Udala*Eguzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2005EKO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2005

Azkenik, Ebko zinegotziak Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespenei buruz galdetu du, ez baitzaizkio zuzenak iruditzen. Alkateak erantzun dio dekretu horiek Legeari jarraiki ematen direla, eta ondo iruditu edo ez legea bete behar dutela.

Ondoren, Maria Dolores Lasa urnietarrak eskatu du hitza esateko bere taldeak mozio bat sartu duela eta inondik inora ez dela agertu. Alkateak erantzun dio mozio hori sartuta dagoela sinadurarik gabe eta hori aurkezteko alderdi politiko batek egin behar duela edo alderdi politiko baten bitartez edo Alkateak aurkeztu behar duela eta berarengana inor ez dela joan horren berri emateko.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostak eta hogeita bostean, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Por último el concejal de IU ha preguntado sobre las exenciones al Impuesto de Vehículos, que no le parecen correctas. El alcalde le ha respondido que esos decretos se emiten en virtud de la Ley vigente, y que así deben cumplirla, les parezca bien o mal.

A continuación, ha tomado la palabra la urnietarra M^a Dolores Lasa para señalar que su grupo ha presentado una moción, y que no ha aparecido en ninguna parte. El alcalde le ha respondido que esa moción la han presentado sin ninguna firma, y que las mociones deben presentarlas o bien un grupo político o bien a través de un partido político o si no, el Alcalde, y que nadie ha acudido a él para dar cuenta de ello.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco y veinticinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría
Bitarteko idazkaria,



Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,

